

4

artikulua

Ingurugiroa

LAUDIO

hiriko kutsadura

XXXII



Tokiko Agenda 21
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion



HIRIKO KUTSADURA

Atmosferaren kutsadurak herritarrengan arnasa hartzeko arazo ugari sortzen ditu eta harrengan, prozesu asmatikoak.

Eragin kaltegarriak ditu, gainera, landaredian, eraikinetan, eta eskala planetarioan negutegi efektua indartzen laguntzen du, klimaren aldaketa, euri azidoa eta beste fenomeno batzuk.

Zarata da kutsatzeko forma puntuala, baina bada bereziki jasangaitza eta gogaikarria. Intentsitate altuko zaratak jasaten denbora luzea egonez gero, entzumenean galerak sor ditzake eta beste trastorno fisiko eta mental batzuk: bihotz taupaden erritmoa (erritmo kardiakoa) aldatu, kontzentrazioa gutxitu, estresa, haserretzeko erraztasuna, erasokortasuna, buruko minak, e.a.

Egundo aurrekaririk izan barik, azken urteotan, norbanakoen gauzetarako erabiltzeaz aparte, lekuko izan gara Kanpo Elektromagnetikoak industria eta

merkataritza jardueretan nola gero eta gehiago erabiltzen diren. Erabilpen horien artean, aipatu behar dira telebista eta irratiak, ordenagailuak, telefono mugikorak, mikrouhin labeak, erradarrak eta beste ekipo batzuk industria, medikuntza eta merkataritzan erabili ohi direnak.

Horien onurak begi bistakoak izan arren, teknologia arloko aurrerapibe horiek keska handia sorrarazi dute, izan ere susmoa baitago horien erabilera elkartuta dagoela osasunerako arriskuekin, batez ere, telefono mugikor eta elektrizitate lineen kaltegarritasunaz. Zientzilarien txostenek iradoki dute aparailu horiek sortutako kanpo elektromagnetikoak pairatuz gero eragin kaltegarriak izan daitezkeela osasunean: minbizia, ugalkortasuna gutxitzea, oroimen galera eta aldaketa negatiboak gertatzen direla pertsonen portaeran eta haurren garapenean.

aholkuak

- Ahal duzun bakoitzean garraio publiko edota ez kutsakorrak erabili, txirrindula adibidez.
- Erradiazio ionizatzaile igortzen dituzten tresnen erabilpena eta luzarorako kokatua sahiestu (telebista, irratia, ordenagailua, telefono mugikorra, eta mikro-uhin labea).
- Spray-ak eta aerosolak ez erabili.
- Plastikoaren erabilpena murriztu.
- Ez zaitetz babes barik luzaroan intentsitate altuko zaratetatik hurbil egon.

Jasangarritasunaren helburu orokorra:

- Hiri inguruneke kutsagarriak gutxitzea.
- ⊖ Kutsadura.
- ⊕ Bizi-maila.



Laudioren Jasangarritasunerako **ekintza plana**



Laudion zer egin da?

Eusko Jaurlaritzak Laudioko udalerrian dituen bi neurketa estazioetatik azken urteotan lortu diren emaitzek adierazten digute neurtutako parametro batean bertan ere ez direla gainditzen gomendiozko balore-gidariak. Ez da gertatu, ezta ere, inolako egoera kritikorik edo aipatzeko moduko gora beherarik.

Lortutako datuetatik **esan daiteke Laudion ingurugiro atmosferikoaren egoera eta airearen kalitatea onargarria dela** eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko gainontzeko udalerrri industrializatuetoaren antzekoa.

Zaratarri dagokionez, zaila da ezagutzea zehaztasunez eta konpreziorik handienaz udalerriko kalitate akustikoa, zaraten maparik ez izatean.

Ostalaritzako establezimendu batzuetan **jarduera zehatz batzuek sortutako eraginak eta efektuak detektatu dira**, hala nola merkataritzako establezimenduren batean ere, 2000 eta 2001 urteetan 11 salaketa erregistratu zirelarik hurrenez hurren, eta horietatik 3 ebazpen fasean daude.

Laudion zer falta da egiteko?

- **Zarataren aurkako neurriak**

Laudioko Udala aztertzen ari da zaraten mapa bat egiten ahal denik eta zehaztasun handienaz ezagutu ahal izateko trafikotik datozenak, industria batzuetatik zein gainontzeko igorpen foku puntualetatikoak.

- **Airearen kalitatearen udal kontrola hobetzea**

Laudion airearen kalitatea onargarria bada ere eta bere neurketa eta kontrolaren eskuduntzak Eusko Jaurlaritzak izan, Udalak, bere zerbitzu teknikoaren bidez aurreikusita dauka Eusko Jaurlaritzako Estazio Sareak eskainitako datuen jarraipena egitea.

- **Telefonia mugikorreko antenen erregulazioa.**

Kanpo elektriko eta magnetikoekiko esposizioaren osasun publikorako ustezko eta balizko efektuengatik haziz doan ardurari erantzuna eman ahal izateko Laudioko Udala badago orain telefonia mugikorreko antenen erregulaziorako udal ordenantza baten erredakzio prozesuan.

Zerbait egiteke geratzen dela uzte baduzu, parte artu **Laudio denon arteko konpromisu bat**.

Hau da 13 artikuludun bildurraren bostgarren alea. Bilduma egin nahi baduzu, udaletxetik aleak biltzeko karpeta eskeintzen dizugu, udaletxeko Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu.